


# Hitzaurrea



aur eta gazte literaturaren munduaren berri emanez bosgarren urtean sartu garelarik, Behinola erreferentzia-puntu garrantzitsua bihurtu dela esan daiteke.

Zortzigarren zenbaki honetako edukiez mintzatzen hasita, Donostian egin zen «Haur Poesiari buruzko biltzarra» delakoan entzun ahal izan genituen askotariko eduki interesgarri batzuk eskainiko ditugu «Hizpide» atalean: sarrerakoa egin zuen Anjel Lertxundirena, eta jarraian Ana Pelegrín, Miquel Desclot, Antonio García Teijeiro eta Juan Kruz Igerabideren txostenak.

Ohi bezala, aldizkariari batasuna eman nahian, «Hitzontzi» ohiko sorkuntza atalean ere, aipatu biltzarreko poesi errezitaldian irakurri ziren poemetako batzuk ekarri ditugu; orobat, biltzarreko mahai inguru bizia ekarri nahi izan dugu «Hitz eta Pitz» elkarrizketa atalera.


Marijane Minaberry poeta beteranoari «Hitzatzea» idazteko proposamena egin genion, baita poz handiz hartu ere igorri zigun poema ilustratua.

Beti bezala, «Hitz beste» atalean liburu zahar eta berrien erreseina ugari aurkeztu ditugu, irakurleen eskerrona berresteko.

Hori guztia Lorena Martinez ilustratzaile gaztearen adierazkortasun handiko azalaz eta irudiez ederturik.

Ez genuke Hitzaurre hau amaitu nahi, herri literaturaren ikertzaile handia eta geure aurreko zenbakiko kolaboratzaile izan zen Joxemari Satrustegi beti atsegina gogoan hartu eta azken aldiz agurtu gabe.

Udazkena arte, batzen gaituzten irakurketetan goza dezazula, irakurle.



## Aurreraka zihoan karramarroaren ipuina

Dohain askoren artean, Txuang Tzu ikaragarri iaioa eta abila zen marrazkiak egiten. EgunHorraio Italo Calvinok kontatu zigun ipuina, *Euskaldunon Egunkariaren* historia laburbiltzeko balio diguna, zeren hamahiru urte igaro baitira kazeta horren lehen aleak argitaratzen hasi zirela. Eta gaur egun, besteak beste haurrei eskainitako *Xingola* gehigarri erakargarriarekin zetorkigula, gehiegitan hedabide handietan baztertutako haur eta gazte literatura aintzat hartzen zuela, koloretsu, kasik perfektu, hara non jakin dugun Italo Calvinoren ipuina, hark jakin gabea, ez zela bere horretan amaitu.

Antza, erregea buruiritzia, bihozgabea eta harroa zen eta luzeegi iritzi zion karramarroa marrazteko Txuang Tzuk behar izan zuen denborari; erregeak, bere ezjakintasunean, ez baitzuen sumatu ere egiten Txuang Tzuk zenbat lan, zenbat ahalegin eta froga egin behar izan zituen karramarro hura marrazteko. Antza, erregeari susmoa piztu zitzaion karramarro hark, hain perfektua izanik, ez ote zen aurrerantza ibiliko eta, hartara, bere erresumako ordenua eta ordenantzak itzulipurdikatuko. Hala bada, Txuang Tzuren marrazkia hartu, eta zati-zati egin zuen, eta bai marrazkilaria bai zerbitzariak giltzaperatu, hala nola egin berri duten *Euskaldunon Egunkariarekin*: egoitzetako atea txiki-txiki egin, aleak birrindu, hamar zerbitzariak bortizki atxilotu...

Baina orain badakigu ipuina ez dela oraindik amaitu eta karramarroak, ziur gaude, aurrera egin dezakeela, aurrera egingo duela.

*Galtzagorri Elkarte*

